


MUSIKA-SORKUNTZARAKO PIZGARRIAK: 2019ko
ORKESTRAKO, GANBERAKO ETA BESTE KONTZERTU-FORMATU BATZUETAKO LANEN
ARGITALPENA

sgae fundazioa



ARAU OROKORRAK

Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusiak eta **SGAE Fundazioak** orkestrako, ganberako eta beste kontzertu-formatu batzuetako musika-lanen argitaratzaileen jarduna sustatzeko asmo irmoa berresten dute, eta, horren arabera, argitalpenerako zenbait pizgarri ezarri dituzte. Pizgarri horiek esleitzeko orduan, honako arau hauek hartuko dira kontuan.

I BETEKIZUNAK

Argitalpenerako pizgarriak honako **musika-lan** hauen lehenengo argitalpenei emango zaizkie: **orkestra sinfonikoa, ganbera-taldeak, bakarrik jotzeko musika-tresnak, ahots bakarra edo abesbatzak (laguntzaz edo laguntzarik gabe), dramatiko musikalak (operak, zarzuelak eta baletak), eta musika klasikoko banda sinfonikoa (ez dira lan folkloriko herritarrak kontuan hartuko)**. Lan originalak izan beharko dira, euren autoreak SGAEko kide estatutarioak izan beharko dira eta kasuan kasuko argitalpen-kontratuaren arabera argitaratu behar izan ditu argitaratzaileak.

- Autoreak eta argitaratzaileak sinatutako argitalpen-kontratuaren lurralde-eremua mundu osoa denean, zehaztutako pizgarriaren %100 jasoko du argitaratzaileak.
- Argitalpen-kontratuaren lurralde-eremua Europar Batasun osoa eta kontinente amerikarra bada, zehaztutako pizgarriaren %75 jasoko du argitaratzaileak.
- Argitalpen-kontratuaren lurralde-eremua aipatutakoak ez bezalako lurraldea bada, zehaztutako pizgarriaren %50 ordainduko da.

Era berean, argitalpenerako pizgarriak jaso ahal izango dituzte atzerrian argitaratu ostean berriro ere eta lehen aldiz Espainian argitaratzen diren argitalpenek, betiere arau hauetan zehaztutako betekizunak betetzen badituzte.

1. Argitaratzaileari dagokionez

- Argitalpenerako pizgarriak SGAEko kide estatutarioak diren musika-argitaratzaileei baino ez zaizkie emango.

2. Lanaren argitalpen grafikoari dagokionez

- Argitalpenetan, honako haxe aipatu beharko da: copyrighta, lege-gordailua gordailua (berorren urteak bat egin beharko du pizgarri eta kaleratzearen urtearekin), inprentaren datuak eta, barruko lehen orrialdean, SGAE Fundazioaren logotipoa behar bezala inprimatuta, argitalpenek pizgarriak jaso dituztela adierazteko.
- Merkaturatzeko moduko duintasuna, akabera eta aurkezpena izan beharko dituzte argitalpenek.
- Merkaturatzeko beste lan-ale inprimatu argitaratu beharko dira (tirada).
- Argitaratutako lanen iraupena ez da bost minututik beherakoa izan beharko, eta edukiak behar bezala irakurtzeko beste orri izan beharko dituzte.
- Formatu handiko lanetan, ganberako formatu erregularreko lanetan eta musika klasikoaren banda sinfonikoetan, gutxienez bi edo hiru zati (partitxela) aurkeztu beharko dira separatan, argitalpena hobeto balioetsi ahal izateko.
- Ahal dela, hobe da lan argitalpenetan bertan pertsonaren edo helburu den ekitaldiaren izena edo hasierako letrak agertzea. Gainera, enkarguren baten ondorioz sortu bada, hobe da pertsona edo erakunde eskatzailearen izena aipatzea.
- Lanak estreinatu direnean baino ez dira argitalpenetan agertuko estreinaldiaren lekuari eta egunari buruzko datuak.
- Formatu handiko lanen argitalpenek 15 zati desberdin edo gehiago eduki beharko dituzte, eta erabilitako karaktereek ondo irakurtzeko besteko tamaina izan beharko dute.
- Musika klasikoaren banda sinfonikoetan, formatu handiko eta formatu erregularreko argitalpen guztietan (4-15 zatikoak), entseguko letrak edo zenbakiak agertu beharko dira partituran nahiz zatietan (partitxelen separatetan).

II LANOK EZIN IZANGO DUTE ARGITALPENERAKO PIZGARRIRIK JASO

1. Fotokopiatutako material koadernatzean sortutako argitalpenak.
2. Argitalpenerako pizgarria jaso duten argitalpen osoak edo partzialak, nahiz eta ostean euren orri-kopurua gehitu.
3. Zati bat modu partzialean argitaratu edo argitalpenerako pizgarriren bat jaso duten lanak, oso-osorik geroago argitaratu direnean.
4. Arau hauek indarrean sartu baino lehen egindako lan-argitalpenak.

III ESKABIDEAK

1. Espainiar estatuko edozein hizkuntza ofizial edo portugaleraz **Argitalpenerako Pizgarrien Eskabidea**¹ bete ondoren, pizgarriaren helburu den lanaren argitalpen grafikoaren ale batekin aurkeztu beharko da.
2. Eskaerak SGAE Fundaziora bidali beharko dira, edota bestela, SGAE-ren egoitza eta ordezkaritza orokorretara. Eskaerak forma akatsen bat izanez kero argitaratzaileari jakinariko zaio. Honek 30 egun natural izango ditu akatsa zuzentzeko, jakinarazia izan den datatik aurrera.
3. Ebaluazio Batzordeak eskatzaileari eskatu ahal izango dio bere ustez beharrezkoak diren agiri eta txosten osagarri guztiak aurkezteko.
4. Eskatzaileak aurkeztutako agiriak SGAEko Musika Artxihoan gordeko dira epealdi mugagabeen.

IV EBALUAZIO-BATZORDEAREN ERAKETA, XEDEA ETA ESKUMENAK

1. Ebaluazio Batzorde batek baino ez du edukiko argitalpenerako pizgarriak esleitzeko eskumena.
2. **Argitalpenerako Pizgarriak Esleitzeko Ebaluazio Batzordeak** lau kide eta boto erabakigarria daukan presidente bat edukiko ditu. Presidente SGAEko Zuzendaritza Batzordeko edo SGAE Fundazioko Patronatuko kidea izan beharko da. Gainerako lau kideak, ordea, honako hauexek izan ahalko dira: SGAE eta SGAE Fundazioko ordezkaritza-organoetan kargurik ez duten SGAEko bazkideak edo ospe handiko orkestrako zuzendariak eta interpreteak; edo eta, SGAE Lurralde Batzordeetako kideak. Ebaluazio Batzordearen kideek ez dute musika-sorkuntzarako pizgarriak eskatzerik izango.
3. Batzordea bera SGAE Fundazioko zuzendari nagusiak deituko du eta bere egoitza sozialean lan egingo du.
4. Ebaluazio Batzordea urteko bilera bakarrik izango ditu martxoan edo apirilean, eta, gehienez ere, hiru batzar egin ahal izango ditu elkarren segidako egunetan. Zenbat lan aurkeztu diren kontuan hartuta, beharrezkoa izanez gero, Ebaluazio Batzordeak lan-saioen iraupena luzatu ahal izango du edo ezohiko bilera egin.
5. Biler horietan, Ebaluazio Batzordeak jasotako eskabideak aztertuko ditu, betiere arau hauetan xedatutakoaren arabera aurreko urteetako urtarilaren 1etik abenduaren 31ra aurkeztutako lanak badira.
6. Ebaluazio Batzordea subiranoa eta ezeztazina izango da bere erabakietan, eta behar besteko eskubidea izango du esleipenen kupoa oso-osorik ez estaltzeko, arau hauetan zehaztutako betekizun formal eta/edo eduki-betekizun bat edo batzuk ez betetzeagatik edo ez agertzeagatik, edo aurkeztutako lanen kalitate faltagatik.

¹ Interesdunek www.sgae.es eta www.fundacionsgae.org web orrietan edo SGAEko ordezkaritzetan izango dituzte eskuragarri.

V PIZGARRIEN KALIFIKAZIOA, SAILKAPENA, KUPOA, ZUZKIDURA ETA ORDAINKETA

1. Argitalpenerako pizgarri hauek esleitzeko orduan, honelaxe sailkatuko dira lanak:

A. 15 zati desberdin baino gehiago dituzten formatu handiko lanak:

- Lan sinfonikoak: orkestrarako, abesbatzarako, orkestra eta abesbatzarako edo baliabide elektroakustikoak erabiltzen dituzten prozesu mistoen bitartez garatutako lanetarako.
- Lan dramatiko musikalak (operak, zarzuelak eta baletak).

B. 1-3 zati desberdin dituzten formatu erregularreko lanak:

- Bakarrik jotzeko musika-tresnetarako edo ahots bakarrerako lanak, 3 zatirainoko ganbera instrumentaleko edo ahotseko taldeetarako lanak (laguntzaz edo laguntzarik gabe) edo baliabide elektroakustikoak erabiltzen dituzten prozesu mistoen bitartez garatutako lanak.

C. 4-15 zati desberdin dituzten formatu erregularreko lanak:

- Ganbera-lanak oro har: 4-15 zatiko ganbera instrumentaleko edo ahotseko taldeetarako (laguntzaz edo laguntzarik gabe), ganbera-orkestretarako edo baliabide elektroakustikoak erabiltzen dituzten prozesu mistoen bitartez garatutako lanetarako.
- Ganberako multzo instrumentalak dituzten lan dramatiko musikalak (ganbera-operak, ganbera-formatuko zarzuelak eta baletak).

D. Musika klasikoko banda sinfonikorako lanak:

- Musika klasikoko banda profesionalentzat idatzitako lan sinfonikoak (ez dira lan folkloriko eta herritarrak kontuan hartuko).

Pizgarriak esleitzeko orduan lanaren kalifikazio eta sailkapenaren inguruko gatazkarik badago, Ebaluazio Batzordeak kalifikazio eta sailkapen hori egokia den ala ez ebatziko du azken batean.

2. Urtero, 15 pizgarri ere emango dira formatu handiko lanen argitalpenerako; 15eraino, 1-3 zatiko formatu erregularreko lanen argitalpenerako; 20raino, 4-15 zatiko formatu erregularreko lanen argitalpenerako; eta, 5eraino, banda sinfonikorako musika klasikoko lanen argitalpenerako.
3. Formatu handiko lan bakoitzerako argitalpen-pizgarria mila eta bostehun eurokoa (1.500 €) izango da; 4-15 zatiko formatu erregularreko lan bakoitzerako, bostehun eurokoa (500 €); 1-3 zatiko formatu erregularreko lan bakoitzerako, berrehun eurokoa (200 €); eta, banda sinfonikoko lan bakoitzerako, zortziehun eurokoa (800 €).
4. Urte berean, argitaratzaile batek formatuko handiko lanen argitalpenerako bi pizgarri jaso ahal izango ditu gehienez; formatu erregularreko lanen argitalpenerako, bost pizgarri, gehienez; eta, banda sinfonikorako musika klasikoko lanen argitalpenerako, pizgarri bat, gehienez.
5. Pizgarriak administrazio-gasturik kendu gabe ordainduko dira, eta PFEZko edo kasuan kasuko herrialdeko zergako atxikipena ezarri beharko zaie, indarreko legeriaren arabera.
6. SGAEko kidea ez den argitaratzailearekin batera argitaratuz gero, erakundeko kidea den argitaratzailearen partaidetzaren arabera ehunekoan baino ez da ordainduko pizgarria, lanak SGAEen duen erregistroaren arabera.

VI ARAUEN ALDAKETA

Ebaluazio Batzordeak behar besteko arau-aldaketak proposatu ahal izango dizkio SGAE Fundazioko Patronatuari, arlo horretako erabateko eskumena SGAE Fundazioko patronatuarena baino ez bada ere.

VII FORU ETA JURISDIKZIOA

Deialdi honen edo berorren baldintza eta erlazioen aplikazioaren ondorioz aldeen artean sor litezkeen gatazkak aztertu eta bideratzeko, eta, hauek indarrean izan luketen edozein foruri espreski uko eginez, Madril Hiriburuko Epaitegi eta Tribunalak soilik aintzat hartuko dira.

Material eta eskakizunen ematea:

SGAE Fundazioa. Musika Saila
Bárbara de Braganza, 7
28004 Madril

Tel. (+34) 91 503 68 00

smoralg@fundacionsgae.org

informacion@fundacionsgae.org

www.fundacionsgae.org

Informazio gehiago SGAE egoitzatan eta
ordezkaritza orokorretan (www.sgae.es)

The logo consists of a dark blue square containing the lowercase letters 'sgae' in white. To the right of the square, the word 'fundazioa' is written in a dark blue serif font.

sgae fundazioa

